



015/2015 TXOSTENA, EUSKADIKO DOKUMENTUEI ETA ARTXIBOEI BURUZKO LEGE-AURREPROIEKTUARI BURUZKOA

I. ESKUMENA

Txosten hau egin da uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 6.1.a) artikuluan ezarritakoaren babesean, abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 6.1 artikuluan xedatzen duenarekin lotuta, eta apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuak, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 16.a) artikuluan ezartzen duenarekin lotuta.

Txosten honek funtzio publikoari berariaz edo ondorio gisa eragiten dioten alderdiak baino ez ditu aztertzen, eta, beraz, zuzendaritza honek ez ditu gainerako gaiak kontuan hartuko.

II. XEDEA ETA HELBURUA

Lege honen helburua, lehenik, Euskadiko dokumentu-ondarea zehaztea da, titulartasun publiko eta pribatuko dokumentuak barne hartzen dituenak, eta, ondoren, Euskadiko Artxiboen Sistema arautzea, Euskadiko Artxiboen Kontseilua eta Euskadiko Dokumentazioaren Ebaluazio eta Irispiderako Batzordea sortuz eta hori osatzen duten artxiboak koordinatzeko irizpideak eta dokumentuen kudeaketarako eredu komun bat zehazteko oinarriak ezarriz. Azkenik, Legeak dokumentuak eskuratzeko eskubidea eta zehapen-araubidea ere jasotzen ditu.

Legea egitean, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak barne hartzen duen arauditik urruntzen da, eta artxiboak eta kultura-ondarea gai honen inguruko araudi orokor eta espezializatua eskaintzen duen berariazko arau baten ikuspegitik arautzen ditu, eta, aldi berean, arau hori eguneratu eta, hausten duenean, indargabetu egiten du.

Hona hemen lehenagoko beste arau batzuk: 232/2000 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituenak; eta 174/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Sistemaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa. Bi arauak indarrean jarraituko dute antolamendu eta funtzionamendu araudi berria onartzen den arte.

Ondarearen kudeaketa egokia izan dadin, honako elementu hauek sortu dira: Euskadiko Dokumentu Ondarearen Inbentarioa, artxibo- eta dokumentu-funtsak identifikatzen dituen administrazio-tresna gisa; eta Euskadiko Artxiboen Errolda, Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen duten dokumentuak barne hartzen dituzten Autonomia Erkidegoko artxiboak identifikatzeko tresna gisa.

III. LEGEZKOTASUNA

Txosten hau egiteko, indarreko araudia hartu behar da kontuan eta, beraz, aurkeztutako proiektua araudi horretara egokitu behar da; zehatzago, honako arau hauetara:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa (EFPL).
- 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena.
- 16/1993 Dekretua, otsailaren 2koa, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa, ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuak aldatzen duena.

IV. EDUKIA

1.- Euskadiko Artxiboen Sistemako organoak

Hauek dira Euskadiko Artxiboen Sistemako organoak:

- Dokumentu-ondarearen eta artxiboen arloko Eusko Jaurlaritzako Saila
- Euskadiko Artxiboen Kontseilua
- Euskadiko Dokumentazioaren Ebaluazio, Hautaketa eta Irispiderako Batzordea

Bai Kontseilua bai Batzordea kide anitzeko organo teknikoak dira. Lehenengoa Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen dutenen koordinazio-, kontsulta- eta aholkularitza-organo gisa arituko da, eta bigarrenaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek sortutako dokumentazioaren tipologiak, dokumentu-sailak eta irispidea ebaluatzea da, dokumentu-ondareari dagozkion dokumentuak kontserbatzarekin edo, hala badagokio, ezabatzarekin zerikusia duten gaiak konpontze aldera.

Araudiak arautuko ditu osaera eta funtzionamendua, eta Legean bertan banakatuko dira organo horien funtzioak. Kide anitzeko organoak direla kontuan izanda, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluko artikulua aplikatuko zaizkie, eta zehazki 22.2 artikulua, hauxe baitio parte-hartzeari buruz:

"Herri-administrazioetako kide anitzeko organoek beren jarduteko arauak ezar edo osa ditzakete, organo horietan gizartearen interesen ordezkari diren antolakundeek parte hartzen badute; eta gauza bera egin dezakete hainbat herri-administrazioetako ordezkariak osatutako kide anitzeko organoek, nahiz eta organo horietan parte hartu ez gizartearen interesen ordezkari diren antolakundeek.

Paragrafo honetan adierazitako kide anitzeko organoak dagokien herri-administrazioan sartuko dira, baina ez administrazio horretako hierarkiazko egituran, baldin eta organoaren sortze-arauek, eginkizunek edo izaerak horretara bultzatzen ez badute behintzat".

Administrazioak berariaz kanporatzen ditu bere egitura hierarkikotik, eta Kontseilu edo Batzorde horretako kide izateak ez dakar kontzeptu horren ondorioz ordainsaririk jasotzeko eskubiderik.

2.- Langileen esleipena

Euskadiko Artxibo Historikoa sortu da, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren zerbitzu gisa. Artxiboa IRARGItik (Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa) sortu zuen, eta, historikoki, zentro horrek bere gain hartu ditu lege-aurreproiektuak Euskadiko Artxibo Historikoari esleitzen dizkion funtzioetako batzuk.

Horri dagokionez, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak bere 80. artikuluan ezartzen duenez, Euskadiko Artxiboen Sistema Nazionala martxan jartzeko, Eusko Jaurlaritzak zentro espezifiko bat sortu beharko du, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak kudeatuko duena.

Era berean, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituen 232/2000 Dekretuak, azaroaren 21ekoak, honela ezartzen du bere bigarren xedapen iragankorren:

"Euskal Kultura Ondarearen Legearen 80. artikuluan aipatzen den kudeaketa-organoa eratzen den arte, horri dagozkion zereginak Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egingo ditu, IRARGI izeneko zerbitzuaren bitartez. Zerbitzu hori Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa da, eta Bergaran du egoitza, Rekalde jauregian."

Ildo horretatik, bai aipatutako artikuluan bai IRARGIren web orrialdean zehaztuta dago bere artxibo-politika: Euskal Kultura Ondareari buruzko 1990eko Legearen garapena eta, *indargune* gisa, udal-artxiboen sare bat sortzeko eta mantentzeko bultzada, baita familia-artxiboen eta, oro har, artxibo pribatuen jabeekiko lankidetzaren ere, titulartasun publikorik ez duten funts horiek kontserba daitezzen eta eskuragarri egon daitezzen.

Horrez gain, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuak bere 26.1.c) artikuluan aipatzen duenez, hau izango da bere zerbitzuetako bat: Irargi, Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Probintzietako Artxibo Historikoak.

Egoitza Bergaran zuen.

Txostena egin zaion aurreproiektuan sortu da, hain zuzen, Euskal Kultura Ondareari buruzko 1990eko Legean aipatzen den kudeaketa-organoa, eta bertako 25. e) artikuluan berariaz aipatzen da nahitaezkoa izango dela Euskadiko Artxiboen Sistema osatzen duten artxiboek langile tekniko espezializatuak izatea, artxibo-zerbitzuaren beharrak asetzeko eta lege honetako arauak betetzeko behar beste.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostenak honela dio:

"Kasu honetan Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroaren (IRARGI) eraldaketaz ari gara. Ez da organismo baten "ex novo" sorrera, izan ere, Euskadiko Artxibo Historikoa duela 25 urtetik martxan dagoen Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren Artxibo Zerbitzuaren (IRARGI, Bergara) eraldaketatik sortu zen. Zirriborroak Euskadiko Artxibo Historikoaren funtzioak eta helburuak deskribatzen

ditu. Funtzio gehienak IRARGIk lehendik egiten zituenak dira, baina orain zehatzago definitu dira”.

Hori dela eta, zerbitzuaren izena aldatu egin da: “IRARGI, Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Probintzietako Artxibo Historikoak” izena izatetik, “Artxibo Zerbitzua” izena izatera igaro da. Zerbitzu horrek Euskadiko Artxibo Historikoa eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Probintzietako Artxibo Historikoak barne hartzen ditu. Horrez gain, egoitza ere aldatu egin da, Bergaratik Bilbora.

“IRARGI, Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa” zerbitzura esleitutako langileak (probintzietako artxibo historikoetako langileak kanpo utzita) Bilboko egoitza berrira aldatu dira. Esleipen hori administrazioak bere egitura antolatzeke duen ahalmenean oinarritzen da; hau da, administrazioak berak erabaki dezake bere antolamendua, betiere, Konstituzioko printzipioak (administrazio-eraginkortasunaren eta -efizientziaren printzipioak, eta beharrezko baliabide materialak eta giza-baliabideak arrazoiz erabiltzeko printzipioa) errespetatuz eta betez (103. artikulua), horrela ez baita ez nahasterik ez etenik egongo zerbitzu publikoa ematean, eta zerbitzu horiek hasiera-hasieratik ondo funtzionatzen dutela berma baitaiteke. Beraz, esan bezala, zerbitzuaren izena eta egoitza aldatu dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioiko sailtako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen ekainaren 26ko 105/2007 Dekretuan (2007ko ekainaren 29ko EHAA, 495. eta 496. orrialdeak) jasota daude Bergarara esleitutako Kultura Ondarearen Zuzendaritzako lanpostuak. Hona hemen lanpostu horiek eta, ondorioz, kaltetutako langileak:

- Kultura-ondarearen arduraduna, 511311 kodea, 1. dotazioa
 - Titularra
- Artxibo-, liburutegi- eta dokumentazio-teknikaria, 511760 kodea, 6. eta 7. dotazioak
 - Bitarteko langilea, 6. dotazioa
 - Titularra, 7. dotazioa
- Erreprografia-teknikaria, 520130 kodea, 1. eta 2. dotazioak
 - Lanpostu amortizatua, 1. dotazioa
 - Titularra, 2. dotazioa
- Laguntzailea orokorra, 520020 kodea, 160. dotazioa
 - Zerbitzu betekizunetan dauden titularrak eta funtzionarioak
- Ordenantza, 530010 kodea, 16. dotazioa
 - Titularra

Ondoren, egoitza Bilbora lekualdatu da, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioiko sailtako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen dekretua aldatzen duen abenduaren 23ko 464/2013 Dekretuaren bidezko lanpostuen zerrendaren aldaketaren ondorioz (2014ko urtarrilaren 13ko EHAA). Dekretu horrek ondorioak izan ditu argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bertan, zenbait aldaketa ikus daitezke honako lanpostu hauetan:

- Artxibo- eta dokumentazio-teknikariaren lanpostuko 24. dotazioa sortu da, 511760 kodea
 - Titularra eta bitarteko langilea
- Erreprografia-teknikariaren lanpostuko 1. dotazioa amortizatu da, 520130 kodea

Adierazi dugun moduan, langile hauek Bergaran ari ziren lanean eta Bilbora lekualdatu dira; hori dela eta, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko

otsailaren 2ko 16/1993 Dekretua aplikatu behar da (zehazki, 2., 10. eta 11. artikulua), ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuak aldatzen duena.

Kalte-ordaina jasotzeko eskubidea lantokia beste herri batera mugitzearen ondorioz sortzen da, bai aldi baterako bai betirako, gehienez bi urteko epean eta ezarritako irizpideen arabera.

Bi urteko epea gertaera eragilea sortzen den egunean hasiko da, alegia, lanpostua Bilbora lekualdatzen den egunean.

Hauxe da egindako txostena, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen menpe uzten dut.

Gasteizen, 2015eko ekainaren (e)(a)n

Sin.: Carmen Miralles
Funtzio Publikoaren Zuzendaritzako aholkulari juridikoa

ONTZAT EMANA

Sin.: Juan María Barasorda Goicoechea
Funtzio Publikoko zuzendaria